

# IDEIA

## IA/INOX ATERKI/PARASOLA

Aterki/Parasola espezializatu bat egitea erabaki dugu, gure esperintzia pertsonalean oinarrituta, horrelako produktu baten beharra zegoela pentsatu genuen.

Gure produktua euritakoaren eta parasolaren funtzioak egiten ditu aldi berean.

Desberdin egiten gaituena hau da → euritako gisa plastikozko kapa berezi bat dauka osagarri moduan eta aulki gurrpilei egokitzen zaio adibidez. Eta bestalde, parasola hainbat osagarriekin hau ere, UVA izpietatik eta berotik aldentzeko erabiliko da eta gainera eguzki-panel



berezi batekin mugikorra , aire girotua... kargatzeko balio izango du.


Aterki-parasola honen enborra aluminio porotsuz eginda dago ,arina eta erresistentzia handikoa da. Aterkiaren txapela plastiko berezi batez osatuta dago, UVA izpietatik babesten gaituena eta aldi berean euriaren ur-tantak erraz labantzen dira han. Aterkiaren hagatxoak ere aluminioz eginda daude,

gogorak dira eta haizeak euritakoa buelta ematea eragozten du. Ondoren, aterkiaren barruan ipinitako babes plastikoa karrete batzuen bidez lotuta dago eta gortina baten gisa

,soka baten bidez bezeroak desiatzen duen luzeera emateko aukera izango du. Txapelean, plaztikoaren goikaldean, eguzki-panel bat dago eta eguzkiaren bitartez energia lortzen da. Energia hori metatu eta kable batzuen bidez, enberraren barrukaldetik joaten da babestutako entxufe batean bukatuz. Han gure mugikorra kargatu eta bentiladore txiki bat ipintzeko gai izango gara.

Produktua parasolaren funtzioa egitean, enberraren euskarria aldatu egin daiteke, produktuak ekartzen duen osagarrietako bat ipini eta horren bidez haren erabat murgilduta geratuko da.

Hori da gure produktuaren deskribapen eta ideia nagusia.



## Balio proposamena

Aterki/ Parasola

**Zer arazo konpontzen duzue?**

ATERKIA :

Batez ere iparraldean dauden herrialdeetan euri asko egiten ohi du. Urte osoan zehar eta gainera ez bakarrik neguan. Guztiok , ohikoa den

bezala, alde batetik bestera gabiltza bakoitza gure egunerokotasunean, ; eskolara, lanera... eta askotan euria eragozpen handi bat bihurtzen da, busti-busti eginda iristen gara lekuetara eta ez gara batere eroso sentitzen. Gainera askotan gure gorpua ez da babestu behar dugun gauza bakarra, maiz eramaten ditugu gauzak gurekin batera (motxilak, poltsak, erosketakoa...) eta hauek are gehiago bustitzen dira. Haizeak ere bere lana egiten du gu etxean gelditzeko gogoen alde, argi dago aterki gehienak ez daude prest herrialde askotako haize eta euri bortitzei aurre egiteko. Ez da batere bitxia, kaletik doan jende askori aterkiak buelta ematen diola ikusteak edota euri zaparrak, itxaron bitartean, euritakoare erabilgarritasuna pikutara eramatea. Oso zaila da egun euritsu batetik aldentzea eta busti barik aurre egitea.

→ Hainbat eta hainbat ikasleek oinez egin behar dute haien eskolarako bidea eta askotan garraio publikoa erabiltzen dute.

- Adibidez, eskolarako ibilbide horretan bizkarrean eramaten duten motxila deserosoak euriarekin ez bustitzeko ahaleginak egin arren, ia beti busti egiten dira, jakinean motxila oihalez egin dagoela eta haren barruan paperezko gauzak egoten direla.
- Are gehiago, lanera doan heldu batek baliozko gauzak, hala nola mugikorra eta ordenagailu eramangarria, babestu nahi ditu, teknologia den guzti hori urarekin puskatzen delako. Baina askotan ezinezkoa da, beti tantak sartzen direlako haizearekin aterki beheira pertsona eta dena bustiz.
- Azkenengoz, euria elbarritu eta hirugarren adineko jende asko etxean geratzearen arrazoi nagusietako bat da. Elbarrituek hotza eta haizea pairatzeaz gain, euri tantakak deseroso egiten zaizkie. Haien mugikortasuna oso urria da gurpil-aulkiagatik eta hura babestea ere zaila da.

→ Eta adibide guzti hauekin batera, beste hainbat egoeratan beharrezkoa da gure aterkia.

“PARASOLA”

→ Udan edo bero handia egiten duen garaietan, hondartzan edo kanpoan dagoen edozein leku batean, bero sentsazioa gehiegizkoa izaten ohi da eta gerizpea behar da.

- Adineko pertsonak, elbarrituek eta gaixo daudenak asko pairatzen dute beroarekin; izerdia, egarria... Beroa, hotza bezala, oso deserosoa izaten ohi da, batez ere udan. Adibidez, Espainiako hegoaldeko beroak arriskuan jartzen ditu batzuetan pertsonak eta gainera azken urteotan tenperatura igoz joan da. Ezinbesteko litzakete aire girotu txiki bat.
- Elbarrituak, aulki-gurpilean mugikortasun urria dute, lehen esan dugun bezala, eta ez dira igerileku ez hondartzara joaten. Eta airearen bitartez tenperatura jaisten bada, gehiago animatuko ziren.
- Askotan, batez ere gazteak, gaur egun dagoen teknologiarekin... beti daude baterria faltan.

## - Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

→ Merkatuan bakarria delako, bi funtzio ditu: aterkia eta parasola. Eta 2 funtzio horien barruan gauza gehiago eskaintzen digulako produktu honek.

→**PARASOLA:** eguzkitik aldentzeko bakarrik ez delako, freskatzeko, gauzak gordetzeko eta edozein gauza kargatzeko ere delako. Hainbat funtzio ditu.

- Adibidez itxaroten bazaude, daukan plastikoak euritik babestuko du bezeroa. Plastikoa oinetararte izango da, euria egiten duen egunetan erabiltzeko. Bero dagoenean, kendu egin ahal izango du.
- Leku askotan beroa geroz eta jasanezina delako. (Españiaren hegoaldean adibidez), udan izugarritzko tenperatura handia egiten du, horrelako produktu bat ondo datorkio edozein pertsonari.
- Erosteke prest egon beharko lukete pertsona guztiak, azken finean zerbitzu handi bat egiten duelako parasolak.

- Elbarrituak, adineko pertsonak eta beste zenbait pertsona hau erosteko prest egongo ziren, askatasun puntu bat ematen dielako, kanpora irtetzeko aukera eta gustora

egoteko.